

ELA - LAB AGIRIA

I.- KRITIKAK

a) BBK-Kutxa-Vital aurrezki-kutxak banku bihurtzea: Euskal Herriko garapen ekonomiko eta sozialarekiko izan duten konpromiso-maila jaitsiko da.

Hitzarturiko bategitearen ondorioz banku bat sortuko da, eta horrek kudeatuko du aurrezki-kutxa ohien "negozioa". Hori dela-eta, aurrezki-kutxek hasieratik izan dituzten helburu sozial eta publikoak suntsituko dira neurri handi batez. *Gogoan izan aurrezki-kutxak irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa sortu zirela, eta jatorrizko ezaugarri gizartegintza izan dutela.* Horrela, erakundea pribatizatzeke ateak irekita utziko dira.

Ekonomiaren eta finantzen krisiari aurre egiteko, kontrol- eta finantza-tresna publikoak indarberritu behar dira; krisiak lotura zuzena izan baitu finantza-arloa araugabetzearekin, eta espekulazioarekin (zeina finantzen arau orokorra bihurtu baita). Kutxak banku bihurtzea justu kontrakoa egitea da, kontrol publikoaren menpean dagoen finantza-tresna bakarra esku pribatuetara aldatzea baita.

Kutxen oraingo ereduak gabezia nabarmenak ditu:

- Kutxek konpromiso eskasa izan dute Euskal Herriko ekoizpen-sarearekin. Hiru kutxen industria-zorroen inbertsioak, 6.000 milioi eurotik gorakoak, etorkizun ziurreko enpresa handietara joaten dira; eta arrisku sozial handiagoa duten, eta beraz diruz laguntzearen premia handiagoa duten bestelako proiektuak alde batera uzten dira.
- Gizartegintzari garrantzi eskasa eman zaio kutxen oraingo ereduan. Gainera, gizartegintzakoak balira bezala sartzen diren ekintza batzuk oso zalantzazkoa da benetan sartu behar diren edo ez.

Banku bihurtu eta gero, lehentasuna emango zaie "kudeaketa" irizpideei, eta errentagarritasunik handiena bilatzeari. Banku bihurtzekotan, aurrezki-kutxek berezko izan duten izaera soziala galduz joango da. Eta horren ondorioz:

- Euskal garapen ekonomikoarekin izan duten konpromisoa gutxiagotu egingo da.
- Gizartegintzaren pisua eta kutxen eginkizun soziala murriztuko da.
- Kutxen gainera kontrol publikoa galduko da.

b) Enplegua eta lan-baldintzak

Azken urteotan kutxetako zuzendaritzek eraman duten politikaren eraginez bai zuzenean kontratatu diren langileen lan-baldintzak, bai zeharka kontratatu direnenak okertu dira. Zuzenean kontratatuturikoen kasuan honako egoera hauek gertatu dira: diskriminazioak, ordainsari-maila apalak, amaiezinezko karrerak, araugabetze-prozesuak, eta abar. Zeharka kontratatuturikoen kasuan (azpikontratak edo zerbitzu-enpresak) prekarietatea nagusitu da azken mugaraino. Kutxetako langileak banku batera aldatuz gero, horrelako gertaerak ugalduko lirateke.

Kezkagarria da guretzatategite-proiektu hau; eta, hortaz, gure esku dauden tresnez baliatuko gara,ategitea beste politika ekonomiko-sozial batetik egin dezaten.

II.- PROPOSAMENAK

a) Kutxa izatea, eta ez banku, euskal garapen sozial eta ekonomikoari begirakoa.

Kutxa baten beharizana azpimarratzen dugu, behar-beharrezkoa baita finantza-tresna publiko bat gizartearen zerbitzuan. Bankuek etekinak bilatze hutsari begiratzen diote, eta inbertsioak espekulaziora bideratzen dituzte, ekoizpen-arlorabideratu beharrean; beti kapitalaren interesak ase nahian. Finantza-krisiak arrazoia eman digu. Eredu publikoa bultzatu behar da, garapen sozial eta ekonomikoa sustatzearren, eta *kutxen etekinak gizartera itzultzearren*.

Beraz, kutxa osatu baten alde agertzen gara, eta ez kutxak banku bihurtzearren alde.

Gure proposamena kutxek hurrengo politika honi jarraitzea da:

- Aurrezki-kutxen proiektuaren izaera soziala areagotzea. Horretarako, gizarte osoarekin eta, zehazkiago, baztertuen dauden gizataldeekin duten konpromisoa sendotu behar da. Bankarekiko aldea nabarmena izan behar da; batik bat, interes-tasak, kreditua eskuratzeko moduak...
- Euskal ekoizpen-sarea ardurapean hartzea, beren-beregi burtsan kotizatzen ez duten enpresak.
- Gizartegintzara bideratzen den etekin-portzentajea neurri handi batez igotzea, eta gizartegintza-atala erakundearena berarena izatea.

b) Euskal Herria egituratzea

Aipaturiko garapen sozial eta ekonomikoaren esparrua Euskal Herria izan behar da. Horregatik bultzatu dugu euskal kutxa bat sortzea; BBK, CAN, Kutxa eta Vital batera biltzen dituen.

Azken saiakerak, ordea, ez dira joan bide horretatik; ikusi besterik ez dago CANek Banca Cívican izandako partaidetza, BBKk Cajasur erosi izana, kutxa horien guztien azken urteotako hedakuntza-politikak, eta hiru kutxak banku bihurtzeko proiektua. Gure eskakizuna, beraz, zera da: proiektu berriaren bitartez Euskal Herria, ekonomia eta finantzen aldetik, egituratzen laguntzea.

Finantza-erakunde berriak aurrezki-kutxen hasierako izaera eta eginkizunak gorde behar ditu, eta euskal finantza-sistema publiko bat sortzen lagundu. Izan ere, oraingo krisi honetan inoiz baino beharrezkoagoa da bertako herritarren beharizanak artatzea, eta Euskal Herriaren etorkizuna suspertzen laguntzea.

Euskara izan behar da erakunde berriaren hizkuntza ofiziala. Gure hizkuntzaren erabilera normalizatzea eta lehenestea helburu duen hizkuntza-politika ezarri behar da, bai barrura begira, bai kanpora begira.

c) Kutxen gaineko kontrol publikoa

Euskal Herriko erakundeek kudeatu behar dituzte kutxak, herri-kontrolaren pean geratu behar dira. Hori dela-eta, herri-erakundeek lekua eta kontrola izan behar dute kutxetako organoetan, finantza-sektorearen helburuak eta praktikak merkatuarenak bezalakoak ez izatea bermatzearren.

Guk politikaren papera azpimarratzen dugu, finantza-erakundeek kudeaketari dagokionez. "Hobe dela adituen esku uztea" dioen diskurtsoarekin gu ez gatoz bat. "Aditu" horiek sektore pribatukoak dira, eta sektore pribaturako egiten dute lan.

Horrekin batera azpimarratzen dugu aipaturiko kontrol publikoa gardentasunez eta aniztasunez gauzatu behar dela, talde guztiei partehartze demokratikoa eskainiz (erakunde sortzaileei, udalei, diru-ezarleei eta langileei). Talde horiei guztiei parte hartzeko lekua gorde beharrean, "teknikariei" ematen bazaie, diru publiko gehiago jarriko da kapitalaren eskueran.

"Halaber, foru- eta udal-erakundeek osaera berria kutxetako organoetan berehala islatzeko eskaria egiten dugu".

d) Lan-harremanen euskal esparrua eta lan-baldintzak

Lan-baldintzei bagagozkie, negoziazio kolektiboa euskal esparruan gauzatzea nahitaezkoztat jotzen dugu. Kutxetako zuzendaritzen asmoa ez dugu onartuko, alegia, estatu-mailako negoziazio-eredua. Estatuko ereduaren estatuordezkaritzari lehenesten zaio, euskal langileen ordezkariaren kaltetan. Horren helburu bakarra lan-baldintzak okertzea da; eta gainera, eredu-aldaketa hori ez da onargarria euskal langile gehienentzat.

Guretzat, hurrengo alderdi hauek funtsezkoak dira bategite-prozesu batean:

- Euskal esparrua, negoziazio kolektiborako eta lan-harremanetarako.
- Lan-baldintzak *gorantz* homologatzea.
- Enpleguari eustea, eta *egiturazko beharrianak betetzen dituzten lan-poltsen ordezkari enplegu finkoa sortzea*.
- Plantilla (oraingoa eta geroan atxikiko zaiguna) kutxetan mantentzea.
- Prekarietatea ezabatzea azpikontratetan, zerbitzu-enpresetan, kutxetako ABLE/ETTetan, eta gizartegintza-atalean. Gutxienezko soldata duina eta subrogazio-eskubidea bermatzea.
- Kutxen partaidetza duten enpresetako langileen lan-baldintzak hobetzea.

Bilbon, 2011eko ekainak 29an